

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLA ETA ARMIÑONGO UDAL ELKARTEA

Idazkari-kontuhartzaile lanpostu hutsa

Elkarte horren idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratu da 2018ko martxoaren 25ean, Dionisio San Juan Ecenarro lanpostuaren titularra zendu delako.

Bat etorri gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioen lege araubidearen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuarekin, lanpostua haietako batentzat gordeta dago, hain zuzen, idazkaritza-kontuhartzailatza azpieskalako funtzionarioentzat.

Kontuan hartu da aipatutako errege dekretuaren 48. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa.

Kontuan hartu da apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.h) artikuluan xedatutakoa.

Horiek horrela, hau ebazten dugu:

Lehenengoa: Hamar egun ematea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera, hautagaiek eskaerak egiteko; xedea da Berantevilla eta Armiñongo Udal Elkartearen idazkari-kontuhartzaile plaza behin-behineko betetzea. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduaren arabera egingo dira. Azkeneko eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

Maila: 26.

Berariazko osagarria: 20.239,94 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Gaikuntza nazionala duen toki administrazioako funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten bada, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Lurralde Politikako Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena proposatuko da izendatua izateko.

Bigarrena. Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioen lege araubidearen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoek xedatutako prozedurak.

Berantevilla, 2018ko martxoaren 28a

Alkatea

JUAN ANTONIO SANTAMARÍA

ERANSKINA

.....jaunak/andreak (NANa:
.; jakinarazpenetarako helbidea:; telefonoa:),
gaikuntza nazionalako funtzionarioak,azpieskalakoak,
eta eguntoki administrazioan lanpostua betetzen duenak, hau

ADIERAZTEN DU

Jakin duela Berantevilla eta Armiñongo Udal Elkartearen idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, titularra zendu delako, eta ALHAOn (.....zk.) argitaratutako iragarkiaren arabera, hura aldi baterako betetzeko aukera dagoela, gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioen lege araubidearen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Betetzen dituela, bere ustean, lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren betekizunak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez,

ESKATZEN DU

Parte hartzea Arabako Berantevilla eta Armiñongo Udal Elkartearen idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin betiko bete arte behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran.

Honekin batera, agiri hauek aurkezten dira:

- NANaren fotokopia.
- Estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa izatea egiaztatzen duen agiria.

....., 2018koren(a).

Sinadura.....

Berantevilla eta Armiñon, 2018koren(a).

Alkatea, JUAN ANTONIO SANTAMARÍA

Alkatea, JUAN MUÑOZ